

KOMUNIKAZIO INSTITUZIONALA

Azken egunetan, Eraso matxista larri baten berri izan dugu Oñatin. Gertaera horren aurrean, Oñatiko udalak eta Sare feministak honakoa adierazten dugu:

Oñatiko Udalak eta Sare feministak gaitzespen gogorrena azaldu nahi dute aurreko astean izandako eraso matxistaren gainean, eta bere laguntza nahiz begikotasun osoa adierazi nahi die eraso pairatu duen emakumeari, eta bere ingurukoei. Udalak dituen informazio eta baliabide guztiak jarri ditu erasotako emakumearen eta honen familiakoen esku, baita prozesuan behar izan dezakeen laguntza guztiaren gaineko informazioa ere.

Erasoaren berri izan duenean, informazioa bildu eta egiaztatu ondoren, Oñatiko Udalak *Emakumeen aurkako indarkeriari erantzuna emateko Protokoloa* aktibatu du. Era berean, informazioa baloratzeko eta biktimari edo bere gertukoei egokia den arreta eman ahal izateko beharrezkoa den koordinazioa bideratu du, erasotuaren eta honen familiaren ongizatea ardatzean kokatuz. Zentzu horretan, errespetua eta familiaren babesa oinarri, garrantzitsutzat jotzen dugu egoeraren inguruko irakurketa morbosoa eta sentsazionalistetatik eta aurreiritzietatik aldentzea, eta horretarako deia egiten zaie herritarrei ere, udalaren eta sare feministaren izenean.

Indarkeria matxista errealitate bat da, bai eta Oñatin ere. 2015. Urtetik, Oñatiko Gizarte zerbitzuetan 49 kasu artatu dira; 2019 urtean, 13 izan dira guztira. Baina jakin badakigu zenbateko hauek gainditzen dituzten errealitateak daudela gurean, eta zenbateko hauek izeberg-aren punta baino ez direla.

Ez dira kasu isolatuak: Indarkeria matxista gizartearen arazo estrukturala da, eta emakumeen eta gizonen arteko desberdinkerian eta botere-harremanean dauka oinarria. Ez da pertsonen arteko indarkeria; gizarte osoaren isla baizik.

Bide horretan, lanean jarraitu beharra dugu, maila bakoitzean dagozkigun erantzukizunak eta ardurak geure gain hartuz, gu guztion esku baitago indarkeria matxistarekin amaitzea, eta udalerrian bizi garen pertsona guztiok eskubide guzti-guztien jabe garela bermatzea. Beraz, ez dugu atsedunik hartuko ahalegin honetan, eta gure herriko bizikidetzak auzitan jartzen duen gizarte egituraketa matxista honi bakoitzak bere eremutik baina indarrak batuta egingo diogu aurre.

OÑATIKO UDALA ETA OÑATIKO SARE FEMINISTA

COMUNICACIÓN INSTITUCIONAL

En los últimos días hemos tenido noticia de una grave agresión machista en Oñati. Ante esto, el Ayuntamiento y la Red feminista de Oñati, hacen pública la siguiente comunicación:

El Ayuntamiento de Oñati y la Red Feminista quieren mostrar su más enérgica condena por la agresión machista sufrida la semana pasada y mostrar su total apoyo a la mujer agredida y a su entorno. El Ayuntamiento ha puesto a disposición de la mujer agredida y de sus familiares toda la información y recursos de los que dispone, así como toda la ayuda que pueda necesitar en el proceso.

Desde que el Ayuntamiento de Oñati tuvo conocimiento de la agresión y tras recabar y contrastar la información pertinente, se ha activado el Protocolo de respuesta a la violencia contra las mujeres para valorar la información y facilitar la coordinación necesaria para poder atender adecuadamente a la víctima y a sus familiares, situando el bienestar de la agredida y su familia en el centro de la actuación. En este sentido, desde el respeto y el apoyo a la familia, consideramos importante alejarnos de lecturas morbosas y sensacionalistas y basadas en prejuicios, y desde ayuntamiento y de la red feminista hacemos un llamamiento a la ciudadanía en esa dirección.

La violencia machista es una realidad, también en Oñati. Desde el 2015, en los Servicios Sociales de Oñati se han atendido 49 casos; en el año 2019 se han registrado un total de 13. Pero sabemos que más allá de estas cifras, la realidad es mucho más amplia, y que estas no son más que la punta del iceberg.

No se trata de casos aislados: la violencia machista es un problema estructural de la sociedad y se basa en la desigualdad entre mujeres y hombres y en la relación de poder. No es una violencia interpersonal; es un reflejo de toda la sociedad.

En ese camino, debemos seguir trabajando, asumiendo las responsabilidades que nos corresponden, porque está en nuestras manos acabar con la violencia machista y garantizar que todas las personas que vivimos en el municipio somos dueñas de todos y cada uno de los derechos. Por lo tanto, no vamos a descansar en este empeño, y vamos a hacer frente a esta estructuración social machista que pone en cuestión la convivencia en nuestro pueblo, cada cual desde su ámbito, pero uniendo fuerzas.

Ayuntamiento de Oñati, y Red feminista de Oñati